

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDAKO UDALA

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko espedientea behin betiko onartzea

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzeko espedienteari alegaziorik egin ez zaionez, umeentzako udalekuen prezioari dagokionez, ordenantzaren testu kontsolidatua argitaratu da, indarrean jartzeko.

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza

1. artikulua

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 43. artikulua ematen dizkion ahalmenez baliatuz, prezio publikoak ezartzen ditu zuzenbide publikoaren araubideko zerbitzuak emateagatik edo jarduerak gauzatzeagatik, baldin eta sektore pribatuak ere emandako zerbitzu edo jarduera horiek administratuek borondatez eskatzen badituzte, ordenantza honen zati baten arabera.

2. artikulua

Arau hau Arratzua-Ubarrundia udalerrri osoan aplikatzen da.

3. artikulua

Arau honetan araututako prezio publikoak ordaindu behar dituzten zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

4. artikulua

Arau honetan araututako prezio publikoen tarifa eranskinean jasotakoa da.

5. artikulua

Eska daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira, eta ezin izango dira murriztu kasu kasuko epigrafeetan adierazitako zenbatekoetan, hobariak edo salbuespenak eman ezean.

6. artikulua

Arau honetan aipatzen diren udal-zerbitzuak emateko edo udal-jarduerak egiteko, aldeztatik eskatu beharko zaio Arratzua-Ubarrundiako Udalari zerbitzu edo jarduera horiek egiteko. Zerbitzu edo jarduera horiek emandakotzat joko dira, betiere, arau honetan araututako prezio publikoak ordaintzearen baldintzapean, eta behin horiek luzatuta, prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denetik aurrera sortzen da arau honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra.

Hala ere, zerbitzuak emateko edo dagoeneko emanda eta luzatuta dauden jarduerak egiteko bada, tarifetan adierazitako aldi natural bakoitzeko lehenengo egunean sortuko da ordaintzeko betebeharra.

8. artikulua

Prezio publikoa honela ordainduko da:

- a) Urteko zerbitzuak edo jarduerak ematen direnean, urte naturalen arabera matrikuletan sartu ondoren.
- b) Hiru hilean behin zerbitzuak eman edo jarduerak egin behar direnean. Bi ordainagiri igorriko dira, bata lehen hiruhilekoari dagokiona eta bestea bigarren eta hirugarren hiruhilekoei dagokiona.
- c) Espazioen alokairuei dagokienez, dagozkien ordainagiriak igorriko dira, eguneko, hileko, hiruhileko edo urteko ordainagiriaren arabera.

9. artikulua

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduerarik egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Aitzitik, ordaintzera behartuta dagoenak baja hartzen badu dena delako jarduera, ikastaro eta abarretan, arrazoi edozein dela ere, ez da bidezkoa izango ordaindutako prezioa itzultzea.

10. artikulua

Prezio publiko horiengatik zorrak premiamenduzko administrazio-prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

Eranskina

A. Kirol instalazioak erabiltzeagatik prezio publikoa ordaintzea.

Oinarrizko zerrenda gisa ezartzen diren erabilera-tipologiak:

- Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publikoek eta pribatuek gorputz-hezkuntzako eskolak emateko instalazioak.
- Guraso-elkartek eta kirol-erakundeek eskola-kirola garatzeko instalazioak.
- Kirol-lehiaketa eta -sustapenerako instalazioak.
- Bideratu gabeko jokorako erabiltzaileek instalazioak erabiltzea.
- Kirol-erakundeek beren afiliatuentzat egindako kirol-eskaintzarako instalazioak, edo herritarrei oro har modu irekian eskainitako kirol-ekitaldiak, baldin eta antolamendu-kaudimena bermatuta badago.
- Desgaitasuna duten pertsonen elkartek edo helburu bera duten erakundeek antolatutako jolas-jarduera fisikorako instalazioak, gizarte- edo osasun-jarduera gisa.
- Kirol-federazioetan sartutako ikastetxe edo elkarten prestakuntza-programetarako instalazioak.
- Derrigorrezkoa ez den irakaskuntza arautuko prestakuntza-moduluetarako instalazioak, hezkuntza-erakundeek antolatuak.
- Jai tradizionalekin lotutako jarduerak edo ekitaldiak prestatzeko eta/edo eskaintzeko instalazioak.
- Topaketak eta/edo jolas-lehiaketak egiteko instalazioak; horietan, erakunde antolatzaileak bermatu beharko du bere kudeaketa-gaitasuna, kirola sustatzeko proiektu bat aurkeztuta (bertan, kirola sustatzeko helburu espezifikoak zehaztuko dira), eta garrantzi soziala justifikatzen duen dokumentu bat.

Prezio publikoei buruzko ohar orokorrak.

- Prezio publikoak ordaintzeak ez du barne hartzen muntaketa-lanik edo aparteko prestaketa-lanik.
- Prezio publikoak ordaintzeak ez du aukerarik ematen hirugarrenei sarrerak iragartzeko edo kobratzeko, ezta salmenta-postuak jartzeko ere.
- Prezioetan ez da sartzen praktikaren kirol-materiala, ezta udalaren jabetzako beste materialik ere.

I. Espazioak erreserbatzea.

I. 1. Kirolguneak:

| KANTXA | | |
|---|--------------------------------|------------------------------------|
| Hezkuntza Sailak alokatzea | | 30.000 euro |
| Kantxaren 1/3 erreserbatzea | Erroldatuak Erroldatugabeak | 7 euro/ orduko 10 euro/ orduko |
| Kantxa osoa erreserbatzea | Erroldatuak Erroldatugabeak | 12 euro/ orduko 16 euro/ orduko |
| Prezio hauei orduko 3 euro gehitu behar zaizkie, argindarra erabiltzeagatik. Denboraldirako erreserba. Denboraldi osorako kantxa osoa alokatzea bematzen bada, prezioa orduko 11 eurokoa izango da, eta horri argindarraren orduko 3 gehitu beharko zaizkio, erabiltzea aurreikusten bada. Alokairuak. Alokairuei ehuneko 21eko BEZa ezarriko zaie. | | |
| Bestelako aretoak | Erroldatuak Erroldatugabeak | 20 euro/ orduko 25 euro/ orduko |

I. 2. Kiroletarako ez diren aretoak:

| | | |
|-------------------------|--------------------------------|------------------------------------|
| Erabilera anitzeko gela | Erroldatuak Erroldatugabeak | 20 euro/ orduko 25 euro/ orduko |
| Bulegoak | Erroldatuak Erroldatugabeak | 10 euro/ orduko 15 euro/ orduko |

* Prezio horiek bikoiztu egingo dira, baldin eta erreserbak matrikulak kobratzen dituzten jarduerak egiteko egiten badira edo ikastaroak edo jarduerak egiteagatik prezioak kobratzen badira. Gainera, jarduera atezaintzako ohiko ordutegitik kanpo egin nahi bada, atezaintzaren kostua gehituko da aparteko orduengatik.

I. 3. Bestelako instalazioak:

| | |
|----------------------|----------|
| Gimnasioa | |
| Eguneko sarrera | 3 euro |
| Hileko bonoa | 15 euro |
| Hiruhileko bonoa | 50 euro |
| Asteburuetakoa bonoa | 100 euro |
| Urteko bonoa | 180 euro |
| Rokodromoa | |
| Eguneko sarrera | 2 euro |
| Hileko bonoa | 10 euro |
| Hiruhileko bonoa | 28 euro |
| Urteko bonoa | 80 euro |
| Arnesa alokatzea | 1 euro |

II. Instalazioak ekitaldi berezietarako erabiltzea.

II.1. Helburua.

Prozedura honen xedea da erabiltzaileek instalazioak kultura-jardueretarako, ezohiko kirol-ikus-kizunetarako edo kirolaz kanpoko jardueretarako erabiltzeko dituzten eskubideak, betebeharrak eta baldintzak normalizatzea.

Instalazioak eguneroko kirol-jardueraz bestelako jardueretarako erabiltzeko eskubidea dute araudi hau betez erabilerara horri dagozkion tasak ordaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko, kirol-elkarte eta onetsiriko beste erakunde guztiek.

II. 2. Ondorengo tipologiaren arabera egindako erreserben prezioak:

- Kirol-ekitaldi ireki bat antolamendu-ekarpenik gabe antolatzen duten irabazi asmorik gabeko kirol-erakundeak, haien egituraren oinarrituta eta/edo ezarritako helburua ez lortzeko arriskua dutenak.

- Baliabideak lortzera begirako helburu ekonomikoa lortzeko sustatzaile gisa jarduten duten kirol-erakundeak.

- Talde politikoaren bilerak, batzarrak edo bilera sindikalak.

- Biztanleei irekitako enpresek eskainitako jarduerak.

- Helburu sozialarekin zerikusirik ez duten kirol-ekitaldiak edo kirolekoak ez diren jarduerak sustatzen dituzten kirol-erakundeak.

- Alderdi politikoaren edo sindikatuen mitinak edo biltzarrak.

- Gizarte-jarduerak.

- Beste kirol-, kultura- eta hezkuntza-jarduera batzuk, etab.

- Orduko: 60 euro, 100 lagunera arteko aforoa badu.

- Orduko: 100 euro, 101 lagunetik gorako aforoa badu.

- * 550,00 eurotik 3.200,00 eurora arteko fidantza.

(*) Ekitaldiak dakartzen baldintzen arabera (iraupena, intentsitatea, edo arriskua).

II. 3. Aprobetxamendua eta zerbitzu bereziak.

Instalazioa kontratatzen duen enpresak muntatuko eta desmuntatuko ditu agertokiak, kantxa eta aulkiak babesteko biribilkiak jarri eta kenduko ditu, materiala lekualdatu eta garraiatuko du, garbiketa-lanak egingo ditu (kasu bakoitzari egokituta), bai eta beste zerbitzu batzuk ere.

II. 4. Salbuespenak.

Salbuespen gisa, euskara, kultura eta kiroleko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez, erreserba berezietarako prezio publikoaren eta/edo fidantzaren salbuespena eman ahal izango da honako kasu hauetan:

- Onura publikokotzat deklaraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskatutako erreserbak.

- Udallerriarentzat eta/edo biztanleentzat interes handikoak diren gizarte-, kultura- edo kirol-ezaugarri bereziak dituzten ekitaldi edo ekitaldietarako erreserbak.

B. Ludoteka-zerbitzua.

Udal ludoteka zerbitzuko bazkide izateko eta zerbitzuaz gozatu ahal izateko kuota ordaintzea ezinbestekoa da. Txandak irailean eskaintzen dira denboraldi bakoitzean, eta hurrengo urteko ekainera arte egongo dira indarrean.

Ludoteka-zerbitzua emateko prezio publikoak honako hauek dira:

| | |
|-----------------|---------|
| Urteko bonoa | 50 euro |
| Eguneko sarrera | 3 euro |

Aplikazio-arauak

Instalazioak erabili aurretik egingo dira ordainketak.

Urteko bonua ordaintzeko, horretarako erabiliko den udal-kontu korrontean ezarritako kuota ordaindu beharko da, zerbitzua erabili aurretik.

Eguneko sarrerak atezaintzan ordainduko dira, aldeztu aurretik.

Kuota ordaindu ondoren plazaren eskaeran atzera egiten bada, ez da horren zenbatekoa itzuliko.

Urteko bonuak adierazitako epeetan ordaintzen ez badira, automatikoki baja emango zaio umeari, ludotekako bazkide gisa.

C. Prezio publikoak jarduerak, ikastaroak eta abar egiteagatik.

C.1 Jarduerak eta ikastaroak irailean eskaintzen dira denboraldi bakoitzean, eta prezioak hurrengo urteko irailera arte egongo dira indarrean.

C.2 Jarduera horietarako eskabideak edo izen-emateak udaletxean egingo dira.

C.3 Inskribatu beharreko pertsonari prezio normala edo murriztua izateko eskatzen zaizkion baldintza guztiak pertsona horrek bete beharko ditu inskripzioa formalizatu aurretik.

C.4 Jardueretarako sarbidea zuzeneko inskripzioaren bidez egingo da, iritsiera-ordenaren arabera.

C.5 jarduera banku-kontuan sartuta ordainduko da.

C.6 Prezio murriztua ordainduz gero, zentroko bulegoetan bertan justifikatu beharko du eskatzaileak zergatik onartzen duen murrizketa hori izena eman eta bi eguneko epe berean, eta kasu bakoitzean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du. Izapide hori betetzen ez bada, galdu egingo da inskribatuta dagoen plazarako eskubidea, eta udalak itzuli egingo dio ordaindutako zenbatekoa, interesdunak hala eskatu ondoren.

C.7 Urtean zehar antolatzen diren jarduera edo tailer bereziek prezio berezia izango dute, dagokion jarduera edo tailerraren kostuaren arabera zehaztuko dena.

C.8 Prezio publikoak erantsitako taulan jasotakoak izango dira:

Prezioen zerrenda:

| | | |
|---------------------------------------|-----------------|---|
| Ohiko jarduerak edo ikastaroak | | |
| Ikastaro batean parte hartze puntuala | | 3 euro |
| Ikastaroaren ordu bakoitzeko | | 20 euro/hiruhileko bakoitzeko |
| Jarduera edo ikastaro bereziak | | Prezioa unean bertan erabakiko da, ikastaro edo jardueraren kostuaren arabera |
| Noizbehinkako tailerrak | | Prezioa unean bertan erabakiko da, tailerraren kostuaren arabera |
| Udalekuak | | |
| | 1 hamabostaldia | Erroldatuek 70 euro /Erroldatugabeek 110 euro |
| | Hilabete osoa | Erroldatuek 110 euro/Ez erroldatuek 210 euro |

C.9. Hobariak eta salbuespenak.

1. Erroldatutakoei ehuneko 25eko hobaria aplikatuko zaie, prezio hauetan:

- Gimnasioko asteburuetako, hiruhileko eta urteko bonuak.
- Rokodromoko hiruhileko eta urteko bonuak.
- Ludotekaren urteko bonoa.

2. Hiruhileko bi jarduera edo ikasturtetan edo gehiagotan izena ematen duten pertsonak ehuneko 20ko hobaria izango dute ezarritako prezioetan. Hobari hori jarduera guztiei aplikatuko zaie.

3. 8.000 eurotik beherako diru-sarrerak justifikatzen dituzten familia-unitateek ehuneko 80ko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerren prezio publikoan.

4. 8.000 eurotik gorako eta 10.000 eurotik beherako diru-sarrerak justifikatzen dituzten familia-unitateek ehuneko 50eko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerren prezio publikoan.

5. Seme-alabei jarduera, ikastaro, udaleku, tailer eta abarretan izena ematen dieten familia ugariak ez dituzte ordaindu beharko hirugarren seme-alabaren eta ondorengoen prezio publikoari dagozkion zenbatekoak. Salbuespen hori umeek adin-nagusitasuna bete arte aplikatuko da.

Hobari eta salbuespen guztiak interesdunek eskatu beharko dituzte jarduera, ikastaro, tailer edo udalekuetan izena emateko unean, eta udalak ez ditu ofizioz aplikatuko.

2. eta 3. paragrafoetan ezarritako hobariak eskuratzeko, familia-unitatearen diru-sarrerak justifikatu beharko dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztuz edo, halakorik ezean, T.10 inprimakia edo Lanbidek emandako diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztuz.

D. aulkiak eta/edo kioskoa maileguan uztea kontzeju, udal, elkarte eta erakundeei, Sologana zentrotik kanpo erabil ditzaten.

Aldez aurretik eskatuta eta maileguan utzitako materiala behar bezala itzuliko dela bermatzeko 100 euroko fidantza jarrita, kontzejuei, udalei, elkarteei eta erakundeei aulkiak eta musika-kioskoa erabiltzeko aukera eman ahal izango zaie, jai-ekitaldiak, kultura-ekitaldiak eta abar egiteko.

E. Sologana zentroaren barruan materiala mailegatzea.

Hala eskatuz gero, partikularrei aulkiak eta mahaiak alokatu ahal izango zaizkie, baina material hori ezin izango da zentrotik atera.

Maileguaren prezioa:

Euro 1 aulki bakoitzeko.

10 euro mahai bakoitzeko.

Fidantza:

100 euroko fidantza jarri beharko da maileguan utzitako materiala behar bezala itzuliko dela bermatzeko.

Azken xedapena

Ordenantza fiskalaren aldaketa hau 2020ko abenduaren 15ean onartu zen behin betiko, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Aldaketa edo indargabetze espresua erabaki arte egongo da indarrean.

Horren berri ematen da, herritar guztiek horren berri izan dezaten, eta jakinarazten da haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Durana, 2021eko otsailaren 15a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE